



❖ DOKUMENTALA `Nafarroaren konkista' ikusgai gaur Biterin

Nabarralde taldeak antolatuta, 1512 nafarroaren konkista izeneko dokumentala ikusteko aukera izango da gaur. Dokumentala Biteri kultur etxean jarriko dute, arratsaldeko 19:30etan. Proiektzioa bukatu ondoren, ordu erdira gutxi gora behera, gaiaren inguruan hitz egiteko aukera izango dute bertan bildutakoek. ||

❖ PARROKIA

Abeslari eta txistulariek entsaioa gaur

Parrokiko abeslari eta txistulariek entsaioa izango dute gaur, 20:00etan, betiko tokian. Entsaioa Donostiako Artzain Ona katedralean abesteko da. ||

❖ TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

Ereñotzu-Fagollagan oniezkoentzako bidea egiteko egitasmoa gaur aztergai

Tokiko Gobernu Batzordea izango da gaur, 14:00etan, Alkatetzan. Bertan, besteak beste, aztergai izango dituzte Ereñotzu-Fagollagan oinezkoentzako bidezidorra egiteko proiektua, eta Zinkoenea eta Orbegozoko errotonda elkar-tzen dituen zubiaren berritze lanaren azken ziurtapena. ||

❖ PORTU AUZOA

Musika emanaldia eta azoka gaur

Ekintza ugari antolatu ditu Portu auzoak Gabonetarako. Gaurkoan, 20:00etan hasita, *El foru* musika emanaldia izango da. Aurretik berriz, azoka egingo dute. ||

Kirolak, magia eta erronda urteari amaiera ezin hobea emateko

Gabonetako ekintzen barruan, hiru jarduera izango dira gaur: hitzaldi-aurkezpena Bertso Eskolaren eskutik, Gabonetako saskibaloiturneoa, eta Barrene herrikoa.

GABONETAN murgilduta dago herria, eta egun horiek giro ezin hobean pasatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Hernaniko Udalak eta taldeek.

Urte amaiera bitartean, egunero izango dira ekintzak. Gaur esaterako, Hernaniko Bertso Eskolak hitzaldi-aurkezpena egingo du. Goizean, kiroldegiko pelotalekuan, 10:00etan hasita, Barrene herrikoa izango da, hau da, palan jokatzeko aukera. Arratsaldean berriz, Gabonetako saskibaloiturneoa izango da, 16:15etatik 20:30etara.

Magia eta kirola bihar
Bihar arratsaldean, magia



Errege kabalgata 18:00etan aterako da, Latsunbeberitik.

gozatzeko aukera izango dute umeez. Tatatxan magoaren eskutik, magia komiko ikusikizuna izango da Biterin; arratsaldeko 17:00-

etatik aurrera. Kirola egitea atsegin duenak berriz, Gabonetako saskibaloiturneoa parte hartzeko aukera izango du

kiroldegian, arratsaldeko 16:15etatik 20:30etara.

Urte amaite eta hasteko, erronda eta txaranga

Urteari amaiera emateko, ostegunean Urte Zaharreko erronda egingo dute, Gudarien plazatik abiatuta, 17:30etan. Gauerdia pasata berriz, Urte Berri egunean, Incansables txaranga aterako dira herria girotzera.

Zinea, musika eta kabalgata urte berrian

Urteari hasiera ona emateko ere, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: bertso jaialdia, zinea euskaraz, umeentzako disko festa txikia eta Erregeen Kabalgata. ||

GABONETAKO EKINTZAK 2009

ABENDUAK 29

Hitzaldi-aurkezpena:

Antolatzailea: Bertso eskola

Saskibaloiko Gabonetako torneoa

Ordutegia: 16:15-20:30

BARRENE herrikoa. Pala

Lekua: Kiroldegiko frontoia

Ordua: 10:00

ABENDUAK 30

Tatatxan jauna: magia komikoa

Lekua: Biterin

Ordua: 17:00

Saskibaloiko Gabonetako torneoa

Ordutegia: 16:15-20:30

ABENDUAK 31

Urte Zaharreko Erronda

Lekua: Gudarien plazatik

Ordua: 17:30

URTARRILAK 1

Incansables txaranga

Ordua: 01:30

URTARRILAK 2

Bertso Jaialdia

Zinea euskaraz:

Pluk

Lekua: Biteri kultur etxea

Ordua: 17:00

URTARRILAK 3

Zinea euskaraz:

Pluk

Lekua: Biteri kultur etxea

Ordua: 17:00

URTARRILAK 4

Disko festa txiki:

Lekua: Atsegindegi plaza

Ordua: 17:00

URTARRILAK 5

Erregeen kabalgata

Irteera: Latsunbeberri auzotik

Ordua: 18:00

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 676 78 60 93
20120 Hernani

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 653 74 10 97
20120 Hernani

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA ● **GAUR** Hego haizea izango da hizpide. Oso zakar joko du, eta 100km-ko abiadura hartuko du. Ondorioz, tenperaturak gora egingo du, 20°C ingurura.

BIHAR Egoera ez da aldatuko. Hego haize boloda oso zakarrak izango dira eta tenperaturak berdi jarraituko du. Lainoak eta ostarteak izango dira.

Altuna IIaren lesioaren ondorioz, Ezkurra eta Ion finalerdietara pasa dira

Altuna IIari atzo goizean egin zioten ebakuntza Donostiako Ospitalean. Bi plaka txiki jarri dizkiote burezurrean duen fisura josteko.

TEJADOS Aoiz Binakako Txapelketa Nagusiak aldatuta nabarmenak jasan ditu, Altuna IIa erremontistaren lesioa dela eta. Eguberri egunean pelotakada bat jaso zuen buruan. Golpea ezkerreko begi inguruan jaso zuen.

Garikoitz Altunari atzo goizean egin zioten ebakuntza, Donostiako Ospitalean, eta medikuak adierazitakoaren arabera, espero bezela atera zen. Burezurrean duen fisura josteko bi plaka txiki jarri zizkioten. Pelotakadaren ondorioz baita ere, amezketarrak odol-bildu bat du betazal ondoan, eta ingresatuta egongo da egun ba-zuetan.

Lesioaren ondorioz, Ezkurra eta Ion finalerdietara pasa dira

Binakako txapelketari dagokionez, Altuna IIa eta Etxeberria IIIa txapelketatik kanpo geratu dira, lesioa dela eta. Ondorioz, talde berean zeuden Ezkurra eta Ion pasa dira finalerdietara. Gauzak horrela, talde berean zeuden Urriza eta Lizaso aurreneko postuan pasa dira finalerdietara.

Hortaz, txapelketak alda-



Altuna IIa txapelketatik kanpo geratu da.

keta batzuk jasan ditu. Zeberio II-Badiolak Ezkurra eta Ionen kontra jokatu dute, ostegunean, 16:00etan, Galarretan; eta bueltako partidua Reyno de Navarran jokatu da, Errege egunean, 16:30etan.

Urriza eta Lizasok berriz, Juaristi eta Urrutiaren kontra jokatu dute. Joaneko partidua Urte Berri egunean jokatu dute, Reyno de Navarran, 16:30etan hasita. Bueltakoa aldiz, urtarrilaren 5ean jokatu dute, Gala-

rretan, 16:00etatik aurrera.

Tanteoa ez da kontuan izango Finalerdietako fase honetan, tanteoa ez dute kontuan hartuko, eta aurrera egiteko partidua irabazi behar dira.

Guztiak jokatu ondoren, berdinketaren bat egongo balitz, hirugarren partidu bat jokatu litzateke.

Final haundiari dagokionez, aurreikusitako egunean jokatu da, urtarrilaren 16an, Galarretan, 16:00etan hasita. ■

Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Herria isilarazten dute

Atez atekoa bultzatzen dugunok herria isilarazten dugula esatea, ilegalizatuta gaudenean, taldea deseginda eta Marian alkatetzatik botatzeko mehatxupean... ez da onargarria. PP eta PSOE bidelagun hartuta hori esatea, onargarria ez izateaz gain, hernaniarroi trufa egiten saiatzea da.

Izenburu hori irakurrita, Amonarraiz bere alderdia kritikatzeko ari dela irudiko luke, Zubietako errauste-plantaren inguruko herri kontsulta eskatzen zuten 35.000 sinadura zaka-rrerara botatzeagatik. Kritikak

zentzu osoa luke errauste-plantak hernaniarren osasuna mehatxupean jarriko duela jakinda. Amonarraizek ordea kasu honetan ondo ikusten du bere alderdiak herria isilarazten lagundu izana.

Errauste-planta ezarri nahi dute, horregatik ari dira atez atekoaren aurka. Herri galdeketa-aren alde daude orain, derrepente; orain arte herri galdeketa guztien aurka egon direnak; errauste-plantaren inguruko herri galdeketa debekatu dutenak. Edozer atez atekoa geldituzeko.

Udal Batzarrean esan

genuen, herri galdeketa aldekoak gara, jakina. Baina hernaniarren osasuna babestea da gure lehentasuna eta errauste-planten aldeko ez diegu utziko herri galdeketa errauste-planta inposatzeko trikimailu moduan erabiltzen. Horregatik, herri galdeketa egitekotan, atez atekoa martxan jarri ondoren egingo dugu, hernaniar guztiok atez atekoaren eta errauste-planten inguruko beharrezko informazio eta ezagutza osoa eskura ditugunean.

Juan Karlos Plazaola
Ezker Abertzaleko zinegotzia

IGERIKETA - XXVII Nazioarteko Eguberri Saria Mañel Aizpurua eta Maitane Danborena txapelketan izango dira bihar

XXVII Nazioarteko Eguberri Saria jokatu da bihar Ordizian eta Mañel Aizpurua eta Maitane Danborena hernaniarrek Euskal Herriko selekziarekin hartuko dute parte. Aizpurua 50 eta 100 libreko proban hartuko du parte eta Danborena 50 eta 100 bizkarrean. Goizeko saioa 10:00etan hasiko da eta finalak 18:00etan izango dira. ■

ZUMITZAKO LIZENTZIAK

Lizentziak egiteko aukera izango da gaur

Zumitza zikloturista taldeak bost urte daramazki txirriindulariak biltzen, eta orain talde ofiziala sortzeko erabakia hartu du. Elkartetik jakinarazi dute nahi duen guztiak federatu lizentziak egiteko aukera izango duela. Lizentziak egiteko aukera hilabete osoan ari da izaten, astearte eta ostegunetan. Egiteko, Zumitza pasa behar da, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Bertan baita ere, aukera izango da datorren denboraldiko ekipazio berria eskatzeko. ■

Atez ateko zalantzak argitzen

Ba al dago nahikoa eskari Hernanin sortuko dugun konpost guztia erabiltzeko?

Bai. Izan ere, lorategi eta baratzeek gain, gure basoek gero eta konpost gehiago eskatzen dute.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II URTEURRENA

† JOXE ARANBURU ARBIZA

JAUNA
2007ko abenduaren 29an hil zen Hernanin, 90 urte zituela,
Elizako eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Pakita Salaberria; seme-alabak: Maria Pilar (Norberto Urangaren alarguna), Maria Jesus eta Paco Bueno, Mari Carmen eta Benito Errazkin eta Isidro eta Isabel Lamy; bilobak: Shanti, Asier eta Itxaso, Gorka eta Lorena, Ane, Aitziber, Joseba eta Jon Ander; eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetele **GAUR ASTEARTEA arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZALEAREN** parroki elizan egingo den **Urtebetetze mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 29an

IRAGARKI MERKEAK

Erreferentzi onak ditudan neska naiz, eta adineko pertsonak zainduko nituzke, gaez, eta goizez garbiketa lanak egingo nituzke, 2 orduz. Deitu: 626 802 083

Alokatzen den pixu baten bila nabil, Hernanin, 2 edo 3 gelakoa. Deitu: 664 124 259

Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan.** "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)